

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala****Basauriko Udalean karrerako funtzionario gisa sartzeko hautapen-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.**

Alkateak 2070/2019 Dekretua eman du, maiatzaren 20an. Honelaxe dio bertako testuak:

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen II. tituluaren IV. kapituluak langileak hautatzeari buruz xedatutakoarekin bat etorrira; eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1 artikulua —apirilaren 21eko 11/1999 Legeak ezarritako aldaketen arabera— aitortutako eskumenak baliatuta, Alkatetza honek zera,

**XEDATZEN DU:**

*Lehenengoa:* Basauriko Udalean karrerako funtzionario gisa sartzeko hautapen-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onestea.

*Bigarrena:* Ondorerik gabe uztea martxoaren 2ko 811/2010 Alkatetza Dekretu bidez onetsitako oinarri orokorra.

*Hirugarrena:* Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea lehenengo puntuan aipatutako oinarri orokorrak.

Basaurin, 2019ko maiatzaren 20an. —Alkatea, Andoni Busquet Elorrieta



## ERANSKINA

**BASAURIKO UDALEAN KARRERAKO FUNTZIONARIO GISA SARTZEKO  
HAUTAPEN-PROZESUAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRI OROKORRAK****Lehenengoa. — Oinarrien xedea**

1. Oinarri hauen xedea da Basauriko Udalean funtzionario-eskala eta -azpieskaletan sartzeko lan-eskaintza publikoen deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak finkatzea.
2. Oinarri hauek orokorrean aplikatu beharko dira. Dena dela, deialdien oinarri espezifikoetan jasoko dira bakoitzaren hautapen-prozesua, txanda, baldintzak, azterketak eta abar.
3. Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan ezarriko da, era berean, deitutako plazetatik zenbat gordeko diren desgaitasunak dituztenentzat, eta zenbat barne-sustapenerako. Ezarritako gutxieneko puntuazioa lortu ez, eta gordetako plazak betetzen ez badira, txanda librekoiei gehituko zaizkie. Salbuespenez, sartzeko deialdi independenteak egiten badira, bete gabeko lanpostuak ez zaizkie inolaz ere txanda librekoiei gehituko. Ezarritako bi sistemetako txanda bakoitzean betetzeko gordetako plazak izango dira dagozkion oinarri espezifikoetan adierazitakoak, lan-eskaintza publikoa onesten duen ebazpenarekin bat etorrira.
4. Baldintza jakinen bat ezarrita daukaten lanpostuak ezingo dituzte inolaz ere bete baldintza hori betetzen dutela egiaztatu ez duten izangaiek.
5. Deitutako plazen kopurua handitu ahal izango da titularren sustapen, erretiro, heriotza eta/edo plaza gordetzeko eskubiderik gabeko eszedentziagatik hutsik geratzen diren lanpostuekin, bai eta Basauriko Udaleko lanpostu-zerrendan sortu berri diren lanpostuekin ere. Kopurua handitzeko aukera hori, dena dela, oinarri espezifikoetan jasota egon beharko da, eta egin beharko da hautapen-prozesua gainditu dutenen zerrenda argitaratu aurretik.
6. Basauriko Udalera sartzeko prozesuan errespetatu egingo da emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa.

**Bigarrena. — Baldintzak**

1. Hautaprobetan parte hartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte izangaiek:
  - a) Honako inguruabar hauetako bat ematea:
    - Europar Batasuneko herritarra edo haren senarra/emaztea izatea (legez banatuta egon gabe); edo/eta Europar Batasuneko herritarren zein haren ezkontidearen semea/alaba izatea (baldin eta bikotea legez banatuta ez badago; hogeita bat urtetik beherakoak ez badira; edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, mendekotasun-egoeran ez badaude). Hala xedatzen du Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 57. artikulua.
    - Europar Batasunak egin, eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen aplikazio-eremuaren barne egotea —non pertsonen zirkulazio askearen printzipioa darabilten—.
  - b) Hamasei (16) urte edo gehiago izatea, eta derrigorrezko gehienezko erretiro-adi-na ez gainditzea.
  - c) Finkatutako eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
  - d) Diziiplina-espediente bidez zerbitzutik kenduta ez egotea administrazio publikoetatik, konstituzio-organoetatik edo autonomia erkidegoetako estatutu-organoetatik. Eta ebazpen judizial bidez kargu publikoetarako zein funtzionarioen kidegora edo eskalara sartzeko desgaitasun absolutuko edo bereziko zigorra jaso ez izana. Beste estatu bateko herritaren kasuan, desgaituta edo horren pareko egoera batean ez egotea; eta jatorrizko estatuan enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen diziplinazko zehapenik edo horren parekorik jaso ez izana, baldintza beretan.



- e) Eskatutako titulazioa edukitzea edo titulazio hori lortu ahal izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den datarako. Eta oinarri espezifikoen adierazitako gainerako baldintzak betetzea. Bestalde, atzerrian lortutako tituluak dituztenek egiaztatu beharko dute badutela dagokion balorazioa, edo, bestela, homologazioa jasotzen duen egiaztagiria.
- f) Indarreko araudiaren arabera desgaitasunerako edo bateraezintasunerako lege-arrazoirik ez izatea. Salbuespena: araudiak aurreikusitako aukera-eskubidea.
- g) Hautapen-prozesu bakoitzerako berariaz ezarritako gainerakoak, deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoen aurreikusitakoaren arabera.
2. Oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean, eta mantendu beharko dira hautapen-prozesuak iraun bitartean eta kontratatu edo bitarteko funtzionarioaren lanpostuaz jabetu bitartean, oinarri espezifikoen aurreikusitako salbuespenak salbu.
3. Desgaitasunak dituztenentzako gordetako kupoa: desgaitasunak dituztenentzat gordetako plazetara aurkezten direnek %33ko edo hortik gorako ezintasun-gradua aitortua izan beharko dute eskabideak aurkezteko epea amaitzen den datan. Desgaitasun-gradu hori egiaztatzeko, Administrazioaren organo eskudunak (foru aldundietako, autonomia erkidegoetako edo lmersoko sail eskudunak) emandako ziurtagiria aurkeztuko da. Edozelan ere, joko da baldintza hori betetzen dutela Gizarte Segurantzaren ezintasun iraunkor osoagatiko pentsioa jasotzen dutenek eta klase pasiboetan zerbitzurako ezintasun osoagatiko edo ezintasunagatiko erretiro-pentsioa jasotzen dutenek.
4. Sistema irekian edo barne-sustapeneko sisteman desgaitasunak dituztenentzat gordetako plazetara aurkezteko baldintzak betetzen dituztenek, hautapen-prozesura aurkeztu nahi badute haientzat gordetako plaza-kupoaren bitartez, aukera hori markatu beharko dute parte hartzeko eskabidean. Gainerako izangaiak, berriz, hautatutako sistemako txanda orokorrean hartuko dute parte.
5. Barne-sustapeneko sistema: barne-sustapeneko txandan parte hartu ahal izateko, 2.1 oinarriak jasotako baldintza orokorrak betetzeaz gain, honako hauek ere bete beharko dira:
- a) Basauriko Udaleko funtzionarioa izatea, dauden eskaletako batean, lortu nahi den plazaren talde edo azpitaldearen azpiko hurrengoan, edo talde zein azpitalde berean, deialdiaren oinarri espezifikoek zer xedatzen duten.
- b) Jardunean urte bi bete izana Basauriko Udaleko jatorrizko karrerako funtzionario plazan, ez bada lortu nahi den plazaren kategoriarako epe luzeagoa finkatzen dela.
- c) Eskatutako titulazioa edukitzea (edo berau lortu ahal izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den datarako); finkatutako antzinatasuna izatea; eta oinarri espezifikoen adierazitako gainerako baldintzak betetzea.
- Izangaiak ez baditu betetzen sistema horren bidez parte hartzeko baldintzak, sistema biak aurreikusten dituzten deialdietan ofizioz joko da sarbide libreko sistemaren bidez parte hartzea hautatu duela.
6. Deialdi espezifikiko bakoitzean, izangaiak sistema bakarrean parte hartu ahal izango dute, hau da, irekian ala barne-sustapenekoan. Eskabidean adierazi beharko dute zein sistematan parte hartu nahi duten. Horrela, bada, eskabide-eredu bi prestatuko dira. Nahi den sistema berariaz adierazten ez bada, edo deialdi bererako baliozko bi aukerak jartzen badira, joko da izangaiak sistema irekia hautatu duela.

#### **Hirugarrena. – Desgaitasunak dituzten pertsonak**

1. Gainerako izangaien baldintza beretan parte hartzen dutela bermatzeko, desgaitasuna duten izangaiak hala eskatuz gero, haiek behar dituzten arazoizko denbora-eta baliabide-egokitzapen eta -doikuntzak egingo dira hautapen-prozesuetan, baldin eta desgaitasunak zerikusi zuzena badu egin beharreko hautaprobarekin.

2. Kalifikazio Epaimahaiak ebatziko du hautaprobak egiteko arazoizko denbora-eta baliabide-egokitzapenen eta -doikuntzen gainean, desgaitasunak dituztenek aurkeztutako agiriak aztertu eta gero.

**Laugarrena. — Eskabideak****4.1. Epea**

Hautapen-prozesuan izena emateko eskabide normalizatuak hogei (20) egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialen argitaratzen den dataren biharamunetik aurrera.

**4.2. Eskabideak bete beharreko baldintzak**

Izangaiek eskabidearen atal guztiak bete behar dituzte. Eta adierazi behar dute oinarri orokor hauetan zein kasu bakoitzeko oinarri espezifikoetan finkatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela.

Horretarako, eskabidean honako hauek jaso beharko dituzte:

- a) Eskatutako datu pertsonalak.
- b) Sistema irekian ala barne-sustapenekoan parte hartu nahi duten, oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera. Izangaiek, deialdi espezifiko bakoitzean, sistema bakarrean parte hartu ahal izango dute.
- c) Desgaitasunak dituztenentzako gordetako kupoan parte hartzeko aukera, oinarri espezifikoetan xedatutakoarekin bat (betiere, izangaiek desgaitasunak dituztenentzat gordetako plazetara aurkezteko baldintzak betetzen baditu eta hala parte hartu nahi badu). Hori aukeratzen duten izangaiek ezingo dute parte hartu ez prozesu orokorretan, ez sistema irekian, ez barne-sustapenekoan. Hala ere, desgaitasunak dituen izangai batek parte hartzeko bi sistemetako edozeinetan gordetako kupotik parte hartzen badu eta, dagozkion probak gaindituta ere, plazarik lortzen ez badu, baina parte hartu duen sistemako txanda orokorreko beste izangaiek baino puntu gehiago lortu baditu, txanda orokor horretan sartuko da bere puntu hurrenkeraren arabera.
- d) Zein eskala, azpieskala eta klasetara aurkezten den.
- e) Oposizio-faseko hautaprobak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituen: euskaraz ala gaztelaniaz.
- f) Desgaitasunak dituztenek beren egoeraren berri eman beharko dute eskabidean, eta, hala badagokio, adierazi beharko dute hautaprobak egiteko zein arrazoizko denbora eta baliabide-egokitzapen eta -doikuntza behar dituzten. Era berean, eta dagokion epaimahai kalifikatzaileak ebatzi ahal izateko ea eskatutakoa badagokien ala ez, egokitzapenen onuradunek, eskabidearekin batera, minusbaliotasun-gradua kalifikatzeko eskumena duen organo teknikoaren irizpen tekniko fakultatiboa aurkeztu beharko dute, zalantza barik egiaztatu ahal izateko aitortutako minusbaliotasun-gradua eragin zuten etengabeko urritasunak.
- g) Ikasketa-titulu ofiziala, parte hartzen den deialdian betekizun gisa eskatu eta aurkezten dena.

**4.3. Eskabideak aurkezteko tokia**

Hautapen-prozesuan parte hartu nahi dutenek eskabidea egin beharko dute Internetetik, Basauriko Udalaren Egoitza Elektronikokoan dagoen inprimakia beteta ([https://sedelectronica.basauri.eus](https://sedeelectronica.basauri.eus)).

Berezko baliabiderik eduki ezean, Udalak arreta emateko gune bat egokituko du Herriarrentzako Arreta Zerbitzuan, eta eskabidea aurkezteko beharrezko baliabide informatikoak jarriko ditu interesdunen esku.

Halaber, eskabideak aurkeztu ahalko dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015. Legearen 16. artikulua xedatutako moduan.

**Bosgarrena. — Izangaiek onartzea**

1. Eskabideak aurkezteko epea agortuta, onartuen eta baztertuen zerrenda onesiko da alkatetza dekretu bitartez. Kanporatuen kasuan, haiek bazter uzteko arrazoiak



adieraziko dira; eta akatsak edo ez-egiteak zuzendu behar dituzten kasuak ere zehaztuko dira. Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

2. 10 egun balioduneko epea egongo da 4.3 atalean adierazitako tokietan akatsak edo ez-egiteak zuzentzeko. Epe hori zenbatzen hasiko da ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunean. Gero, Alkatetzak ebazpen berria emango du, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko. Hura ere Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da, besterik gabe.

3. Ezingo da zuzendu eskabidea epez kanpo aurkeztu izana, ez eta merezimen-duak egiaztatzekeo agirietan akatsak edo ez-egiteak egotea ere.

4. Hautagaiak onartzeak ez du esan nahi prozesua izapidetu bitartean haien ezin daitezkeenik baztertuak izan: proba guztiak egin nahiz ez egin, aurkeztutako datuak edo agiriak egiaztatu ondoren ikusten bada onartuak izateko eta hautapen-prozesuan parte hartzeko eskatutako betekizun guztiak betetzen ez dituztela, baztertuak izan ahalko dira. Kasu horretan, Epaimahaiak izangaia baztertzeko proposamena egingo du, eta, interesdunari entzunaldia eman eta gero, Alkatetza Udalburutzak dagokion ebazpena emango du.

5. Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzen duen Dekretuan baztertu gisa agertu diren hautagaien errekursoak jartzen badituzte eta, hautaprobak egiteko egunean, errekurso horiek oraindik ebatzi gabe badaude, eragindako hautagaien hautaprobak egin ahal izango dituzte. Gero, aipatutako errekursoak ezetsiz gero, probek ez dute baliorik izango.

6. Edonola ere, interesdunek hautapen-prozesuan eskatutako baldintzak betetzen dituztela aitortzeko, nahitaezkoa dute 10. oinarrian aurreikusitakoak egiaztatzekeo agiriak aurkeztea. Beraz, interesdunek, egiaztagiririk aurkeztu ezean, hautapen-prozesuan parte hartuta lor ditzaketen eskubide guztiak galduko dituzte.

#### **Seigarrena.— Epaimahai kalifikatzaileak**

1. Alkatetza dekretu bitartez izendatuko dira epaimahaikideak, bai eta epaimahai hori osatzeko eta lehenengo ariketa egiteko lekua, data eta ordua ere.

2. Epaimahaia eratuko da Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 60. artikuluko xedatutakoaren arabera, eta honako hauek osatuko dute: epaimahaiburua, idazkaria eta lau epaimahaikide. IVAP-HAEEK izendatuko du epaimahaikideetako bat. Epaimahaiaren osakeran, berriz, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31.2 artikuluko jasotako espezialitate-printzipioa bermatuko da, eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4 artikuluko ordezkariak orekatuarena ere bai.

3. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatuko ditu deialdian ezarritako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzekeo probetako epaimahaikideak. Hala egingo du, epaimahai kalifikatzaileak eratzeko egin duen izendapenaren kalterik gabe.

4. Epaimahaiak aholkulariak ere deitu ahalko ditu. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira, hautapen-prozesuaren proba batzuetan edo guztietan.

5. Epaimahaiak baliozkotasunez jardun ahal izateko, honako hauek egon beharko dute, gutxienez: epaimahaiburua eta idazkaria edo, hala denean, haien ordezkariak; eta epaimahaikide kopuruaren erdiak. Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa; idazkariak, berriz, ez du botorik izango. Erabakiak hartuko dira bertaratutako epaimahai-kideen gehiengoaren aldeko botoarekin. Berdinketa egonez gero, epaimahaiburuaren kalitateko botoak ebatziko du. Epaimahaiaren jardute-prozedura, Oinarri hauetan aurreikusita ez dagoenerako, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Atariko Tituluan, II. kapituluaren, 3. atalean xedatutakoari egokituko zaio.

6. Epaimahaia osatzen dutenek ez dute esku hartuko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako arazoirekin bat tartean bada. Halaber, izangaiekin epaimahaiko kideak errekusatzekeo eskatu ahalko diote alkate udalburuari, aipatutako inguruabar horietako bat ematen bada.



7. Epaimahaiburuaren eta haren ordezkoren karguak hutsik badaude, titularrak ez badaude, gaixorik badaude edo legezko beste arrazoi batengatik bertaratzen ez badira, Epaimahaiko beste kide batzuek ordeztuko dituzte, honako hurrenkera honen arabera: lehen ordezkaria izango da lanpostu mailako osagarriarik handiena duena; bigarrena, antzinasun handiena duena; eta, azkena, urte gehien dituen epaimahaikidea.

Idazkari titularraren eta haren ordezkoren karguak hutsik badaude, titularrak ez badaude, gaixorik badaude edo legezko beste arrazoi batengatik bertaratzen ez badira, Epaimahaiko kideek erabakiko dute, gehiengo, kideen arteko zeintzuk izango diren ordezkorenak.

8. Epaimahai Kalifikatzaileak ez beste inork izango du eskumena deialdiaren oinarrien interpretazioari buruzko zalantza eta galdera guztiak ebazteko eta hautapen-prozesua egokiro garatzeko hartu beharreko erabakiak hartzeko, aplikatzekoa den lege-araudian edo Oinarrietan bertan aurreikusita ez dagoen guztirako.

9. Epaimahaiak izangaiei haien nortasuna egiaztatzeko eskatu ahalko die, hautapen-prozesuaren edozein unetan.

10. Epaimahaiak, hautapen-prozesuan, beren espedientearen berri izateko eskubidea bermatuko die hautagaiei.

11. Epaimahaiaren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango da alkate udalburuaren aurrean, ebazpena argitaratzeko dataren biharamunetik hila-beteko epean.

12. Epaimahaiko kide izan zein epaimahaian laguntzeagatik, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan finkatutako indemnizazioak jasoko ahalko dira.

#### **Zazpigarrena. — Hautapen-prozedura eta proben kalifikazioa**

1. Oposizio, lehiaketa edo oposizio-lehiaketa sistemen bitartez egingo da hautaketa, deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoean aurreikusitakoaren arabera.

2. Hautapen-prozesuetan, gainera, prestakuntza-ikastaroak edo/eta praktikaldiak aurreikusi ahalko dira prozesuaren beste fase bat bezala —oinarri espezifikoean aurreikusitakoarekin bat, betiere—.

3. Hautapen-prozesuak lehiaketa ere aurreikusten badu, honako arau hauek jarraituko dira, oinarri espezifikoean finkatutako espezialitateen kalterik gabe:

- a) Merezimenduen egiaztagirak aurkeztuko dira, eskabideak aurkezteko epearen barruan. Jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak baino ez dira onartuko egiaztagiri baliodun gisa. Bestelakorik aurkeztuz gero, ondorioztatuko da merezimenduak ez direla egiaztatuta.
- b) Ez dira baloratuko eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean behar bezala egiaztatuta ez dauden merezimenduak, ez eta eskatzaileak egindako baieztapenetan bakarrik oinarritutakoak ere. Merezimenduak dagozkion baremoaren arabera baloratzeko beharrezko datuak ez dituzten agiriak ere ez dira baloratuko.
- c) Ez dira inolaz ere baloratuko funtzionario izateko hautapen-prozesuetan egin beharreko proba gisa aurreikusitako prestakuntza-ikastaroak, titulazio akademiko bat lortzeko ikasketa-plan bati dagozkionak eta dagoeneko baloratutako beste ikastaro batzuen eduki bera dutenak.
- d) Eskabideak aurkezteko epearen amaiera-datara arteko merezimenduak baloratuko dira.
- e) Merezimenduak egiaztatzeko aurkeztutako agiriak jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak izan beharko dira. Kopia horiek, baliozkoak izateko, honako informazio hau jaso behar dute: data, eta konpultsa egiten duen pertsonaren izen-abizenak, NANA eta irakurtzeko moduko sinadura.
- f) Urteka, sei hilabeteka edo hilabeteka baloratzen diren merezimenduak, aurkeztutako aldiak egunetan batuta baloratuko dira; eta, batura egin ondoren, alde batera utziko dira dagokion alditik beherako zatiak. Ondore horietarako, urteak 365 egun natural izango ditu; seihilekoak, 180 egun natural; eta hilabeteak, 30 egun natural.



- g) Lehiaketa-fasea ez da baztertzaila izango, eta bertan lortutako puntuak ezin izango dira kontuan hartu oposizio-faseko hautaprobak gainditzeko.
- h) Euskara eta informatika jakiteko uneei buruz ezarritakoa gorabehera, gainerako merezimenduetan bakarrik konputatuko dira eskabideak aurkezteko azken egunera artekoak. Hala ere, deialdi espezifikoan finkatzen bada hizkuntzen ariketak egitea, horien ondoriozko merezimenduak konputatuko dira ariketok egin zireneko data kontuan hartuta.
- i) Basauriko Udalean lanean egondako denbora aurkeztu egin beharko da, baina interesdunek ez dute hura egiaztatu beharrik izango: Administrazioak berak konputatuko du, ofizioz. Gainerako herri-administrazioetan lan egin izandako denbora, berriz, haietako bakoitzak horretarako duen ereduaren bidez egiaztatu beharko da. Edonola ere, lan egindako aldiak xehatu egin beharko dira, eta adierazi bakoitza zein kidego edo eskalari, azpieskalari eta klase edo kategoriari dagokion. Aurkeztu eta egiaztatu nahi diren zerbitzuak Basauriko Udaletik kanpokoak badira, eta horiek lanbide-sailkapenaren talde edo azpitalde bat baino gehiagotara, edo kidego zein eskala desberdinetara irekiak dauden plazetan egin badira, eta lanpostua irekia izate hori ez badago jasota eskainitako zerbitzuen ziurtagirian, inguruabar horri buruzko egiaztagirien kopia ere aurkeztu beharko da. Baliokidetzat joko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Administrazioan edo Toki Administrazioan eskainitako zerbitzuak, uztailearen 30eko 208/1990 Dekretuak jasotzen dituen baldintzetan (Euskal Administrazio Publikoen Kidego eta Eskalen arteko baliokidetzak ezartzen ditu aipatutako dekretuak). Dena dela, otsailaren 25eko 1/2004 Legeak ezarritako eguneratzeak egingo dira (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen Kidegoen eta Eskalen antolamendua arautzen du lege horrek).
- j) Deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan hala jasoz gero, eta oinarri horiek aurreikusitako baremoen arabera, merezimendu gisa baloratuko da egiaztatutako informatikako jakintza-maila. Horretarako, Euskadiko Informazio Gizartearen Planak KZGuneetan eskura jarritako moduluak lortzeko hautapropa gainditu beharko dute izangaiek. Hain zuzen ere, IT Txartelaren sistemaren bitartez egiaztatuko da moduluak gainditu direla. Geroagoko bertsioen egiaztapenak lehenagoko bertsioenak baliogabetuko dituzte. Dena dela, beste erakunde ofizial eta zentro homologatu batzuen egiaztagirien bitartez ere egiaztatu ahalko dira informatikako jakintzak. Modulu bereko oinarrizko bertsioa eta aurreratua egiaztatuz gero, azken hori baino ez da baloratuko. Informatikako-jakintza maila onartu eta baloratzeko erreferentzia-data izango da oposizio-fasean egindako azken probaren behin-behineko emaitzak argitaratu osteko hamar egun balioduneko epearen azken eguna.
4. Oposizio-faseko probak:
- a) Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehaztutako ariketak egin beharko dira oposizio-fasean.
- b) Ariketarako deialdi bakarra egingo zaie txanda bakoitzeko izangaiei. Aparteko egoerak justifikatu egin beharko dira, eta dagokien Epaimahai Kalifikatzaileak ebaluatuko ditu. Identifikatzeko, honako agiri hauetako bat ekarri beharko dute izangaiek hautaprobetara: NANA, pasaporte edo gidabaimena, edo, atzeritarren kasuan, horien baliokidea. Proba egiteko data heldu, eta jarritako errekurtsua ebatzi gabe badago, interesdunek probak egin ahalko dituzte, kautela-neurri gisa. Kautelarki egindako ariketak ez dira baliodunak izango errekurtsua ezetsi egiten badute.
- c) Haurdunaldi arriskutsua edo erditze-arriskua direla-eta izangairen batek ezin badu hautapen-prozesua burutu, edo ezinezkoa bazaio ariketaren bat egitea, prozesua amaitzeko eta atzeratutako faseak gainditzeko zain geratuko da; edo, zelan ere, atzerapen horrek ezingo du kaltetu gainerako izangaiek prozesua arrazoizko epe batean ebazteko duten eskubidea, eta Epaimahaiari dagokio hori guztia baloratzea. Dena dela, hautapen-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda argitaratu aurretik egin beharko dira atzeratutako probak.



- d) Epaimahaiak dagozkion neurriak hartuko ditu, idatziz egin behar diren ariketak zuzentzean hautagaiak nortzuk diren jakiterik ez dagoela bermatzeko (horretarako, inprimaki normalizatuak erabiliko dira), ez bada ariketok jendaurreko saio publikoan irakurtzea xedatzen dela. Epaimahaiak baztertu egingo ditu beren nortasuna ezagutzea ahalbidetzen duten marka edo zeinuak dituzten ariketen egileak.
- e) Hala badagokio, Administrazio Publikoko Estatu Idazkaritzak egindako zozketaren bidez finkatuko da izangaien ordena. Hala xedatzen du Estatuko Administrazio Orokorrean diharduten langileen sarbiderako, lanpostuen hornikuntzarako eta administrazio bereko funtzionario zibilen lanbide-sustapenerako arautegi orokorra onartzen duen martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren 17. artikulua. Zozketaren ondorioz finkatutako letratik hasten den lehen abizena duen izangairik ez badago, letra horren hurrengotik abiatuko dira.
- f) Onartuen eta baztertuen zerrendari buruzko alkatetza dekretua argitaratzen denetik lehenengo ariketa egin arte, bi (2) hilabete igaro beharko dira, gutxienez (oinarri espezifikotik beste epe bat finkatzen ez bada).
- g) Epaimahai kalifikatzaileek ezarriko dituzte probak egiteko arrazoizko denbora eta baliabide egokitzapenak, desgaitasunak dituzten hautagaiek eskabidean eskatutakoaren arabera. Egokitzapen horiek, nolahi ere, ezingo dute probaren edukia desitxuratu, eta ezingo dute eskatu beharreko gaitasun-maila kaltetu edo jaitsi.
- h) Proba baten behin betiko emaitzak argitaratu eta hurrengo hasi bitartean, hirurogeita hamabi ordu igaro beharko dira gutxienez, eta berrogeita bost egun natural gehienez.
- i) Behin hautaprobak hasita, hurrengo iragarkiak ez dira, derrigorrez, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko. Iragarkiok Basauriko Udalaren iragarki-taulan eta udal webgunean argitaratuko ditu Epaimahaiak. Ariketa bera baldin bada, hura hasi baino hogeita lau (24) ordu lehenago, gutxienez, argitaratu beharko du iragarkia; eta berrogeita zortzi (48) ordu lehenago, gutxienez, beste ariketa bat baldin bada.
- j) Oposizio-faseko ariketa bakoitzaren zuzenketa amaitutakoan, Epaimahaiak gainditu dutenen eta bakoitzak lortutako notaren zerrenda argitaratuko du Basauriko Udalaren iragarki-taulan eta udal webgunean. Deialdiaren oinarri espezifikotik jasotako txanda bakoitzerako zerrenda bat egingo da.
- 1) Barne-sustapen arrunteko txandan gainditu dutenen zerrenda.
  - 2) Desgaitasunak dituzten pertsonen barne-sustapeneko txandan gainditu dutenen zerrenda.
  - 3) Txanda librean gainditu duten gainerako izangaien zerrenda bateratua.
  - 4) Desgaitasunak dituzten pertsonen txandan gainditu dutenen zerrenda.
- Euskara azterketa egin eta gero, aipatutako zerrendak bereizi egingo dira lanpostuei esleitutako hizkuntza-eskakizunen, eta horiek derrigorrezkoak diren ala ez diren aintzat hartuta.
- k) Ariketa bakoitzaren behin-behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, izangaiak hamar laneguneko epea izango dute ariketa horren gainean egoki irizitako erreklamazioak aurkezteko Epaimahai Kalifikatzailean. Erreklamazio epea amaituta, eta aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, Epaimahaiak ariketa bakoitzaren behin betiko emaitzak argitaratzeko agindua emanango du.
- l) Oposizio-fasea amaituko da azken proba gainditu duten izangaien behin betiko zerrenda horiek argitaratu eta gero.
5. Deialdi bakoitzak gai-zerrenda bi izango ditu: bata, komuna, plazaren titulazio-taldeari dagokiona; eta bestea, espezifikoa, plazari berari dagokiona.





6. Edozelan ere, barne-sustapeneko sistemara aurkezten direnek ez dituzte egin beharko gai-zerrendako zati komuneko edukiaren ezagutzak baloratzeko deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoen aurreikusitako probak.

7. Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko, horien baliokidetzarako eta baliokidetasunen araubiderako, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan (1997ko apirilaren 17ko EHAA), urriaren 6ko 263/1998 Dekretuan (1998ko urriaren 23ko EHAA) edo balorazioa egin behar denean indarrean dagoen araudian xedatutakora joko da.

Euskara azterketa, nahitaezkoa zein borondatezkoa, berbera izango da izangai guztientzat, eta hura planifikatu, antolatu eta garatzeko, IVAP-HAEEren deialdi bateratuen sistemari jarraituko zaio.

- a) Plaza bakoitzari dagokion hizkuntza-eskakizuna finkatuko da haren eskala, azpieskala eta, hala badagokio, klasekoak diren gainerakoek bete ditzaketen lanpostuen artean nagusiki esleitutako hizkuntza-eskakizunaren arabera.

Edozein plaza lortzeko, alde batera utzita dagokion hizkuntza-eskakizunak derri-gortasun-data duen ala ez, euskara jakitea merezimendu gisa hartuko da. Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoen zehaztuko da egiaztatutako hizkuntza-eskakizunak duen ehunekoa.

- b) *Euskara proba*: Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko hautaprobak nahitaezkoak izango dira hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa duten plazetara aurkezten direnentzat, eta borondatekoak, berriz, plazaren hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa ez denean.

Hala ere, hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko hautaprobak egin aurretik, Epaimahai Kalifikatzaileak epe bat irekiko du, deialdiaren xede den plazari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta daukaten izangaiek horren ziurtagiria aurkez dezaten. Hala egiten dutenek ez dute euskara azterketa egin beharko.

Hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta izan, eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan dauden izangaiek ez dute egiaztagiririk aurkeztu beharko. Horretarako, baina, Basauriko Udalarai baimen espresua eman beharko diote, egiaztatu dezan adierazitako guztia.

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatu nahi dituztenek euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeari eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteari buruzko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak xedatutakoaren arabera, dagokion egiaztagiria akademikoa aurkeztu beharko dute euskara proba egin aurretik.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabakiko du noiz egingo den euskara proba, baina, edozelan ere, oposizio-fasean izango da.

Behin-behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, interesdunek hamar laneguneko epea izango dute euskara probaren inguruan egoki irizitako erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazio epea amaitu, eta aurkeztutakoak ebatzi ondoren, Epaimahaiak euskara probaren behin betiko emaitzak argitaratzeko agindua emango du.

#### **Zortzigarrena. — Iruurrezko jokamoldea eta lehia desleiala zelan kudeatu**

Epaimahaiak prozeduratik baztertu ahalko du iruurrezko jokamoldea izan, eta, ondorioz, probetako edozein behar bezala gartzea eragozten duen, edo, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen arabera, lehia desleiala eragiten duen edonor. Epaimahaiak berehala jakinaraziko dizkio jarduketa horiek Basauriko Udaleko Giza Baliabide Arloari, eta, horrez gain, saioaren aktan jasota utziko ditu. Era berean, hautapen-prozesuko probetan ezingo dira eduki edo erabili lehenago aipatutako printzipioak bermatzeko gailu edo baliabide teknologikoak. Deialdi bakoitzean argitaratuko den jarraibide-orrian zehaztu eta garatuko du Epaimahaiak atal honetan adierazitakoa.

Adierazitakoa betetzen ez duten hautagaiak baztertuak izango dira berehala, bai probatik, baita hautapen-prozesutik ere. Eta, beraz, ez dira sartuko prozesuaren ondorioz sortuko den lan-poltsan.

**Bederatzigarrena. — Prozesuaren emaitza**

1. Hautapen-prozesu bakoitzean lortutako puntuen baturaren hurrenkeran sailkatuko dira izangaiak. Berdinketa egonez gero, honako irizpide hauei jarraituko zaie:

- a) Oposizio-fasean puntu gehien lortu duena.
- b) Oposizio-faseko azken proban puntu gehien lortu duena.
- c) Oposizio faseko lehen proban puntu gehien lortu duena.
- d) Lehiaketa-fasean puntu gehien lortu duena.
- e) Herri-administrazioetan zerbitzu-denbora gehien egiaztatu duena. Ondore horietarako, zerbitzu-denbora hori lehiaketa-fasean baloratzeko merezimenduak izan behar dira, deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoen arabera.

3. Hautapen-prozesua amaituta, Epaimahaiak iragarki-taulan eta udal webgunean argitaratuko ditu gainditu duten izangaien behin betiko kalifikazioak, guztira lortutako puntuazio handienetik txikienera, eta berariaz adierazita hautatutako pertsonak nortzuk diren. Hautatuen kopurua ezingo da izan deitutako lanpostuena baino handiagoa, deialdian bertan hala aurreikusi ez bada.

4. Epaimahaiak, Giza Baliabideen Arloaren bitartez, Alkatetza Udalburutzari bidaliko dio gainditu duten izangaien zerrenda, puntuazioaren hurrenkeran ordenatuta; eta berariaz egingo du hautatutako pertsonak izendatzeko edo kontratatuzeko proposamena, zeina loteslea izango baita.

5. Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak eskuratu nahi dituztenek ez badute euskara azterketa (nahitaezkoa eta baztertzaila) gainditu, hautapen-prozesuan jarraitu ahal izango dute, derrigorrezkoa ez den hizkuntza-eskakizuna duten plaza eskuratzeko. Kasua hori denean, ariketa horretan lortutako kalifikazioa kontuan hartuko da, eta oposizio-faseko ariketa guztietan lortutako puntuak errespetatuko dira.

6. Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak lortu nahi dituzten izangaiak ezin badira lanpostu horietarako hautatuak izan hizkuntza-eskakizuna deialdian aurreikusi moduan egiaztatu arren, kontuan hartuko dituzte derrigorrezko hizkuntza-eskakizunik ez duten lanpostuen hautapen-prozesuetan: gorde egingo dizkiete oposizio-faseko ariketa guztietan eskuratutako puntuak.

7. Erabateko lehentasuna izango du derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak betetzeak. Izangai berak derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duen lanpostua edo horrelakorik ez duena hautatzeko puntu nahikoa eskuratu badu, lehentasuna izango du derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duen lanpostua betetzeak.

8. Desgaitasunak dituztenentzako txandan parte hartu duten izangaiak ezin badira txanda horretan hautatuak izan, automatikoki kontuan hartuak izango dira desgaitasunik ez dutenen txandaren hautapen-prozesuan: kasua hori denean, gorde egingo dizkiete oposizio-faseko ariketa guztietan eskuratutako puntuak.

**Hamargarrena. — Agiriak aurkeztea**

Hautatutako izangaiak honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte Udal Erregistroan, prozesuaren emaitza jakinarazten den dataren biharamunetik 15 laneguneko epean:

- a) NANaren fotokopia konpultsatua.
- b) Izangai atzerritarrek Basauriko Udalaren jakinarazpen bat jasoko dute. Bertan azalduko diete zein den beren egoeraren arabera nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazioa.
- c) Zinpeko adierazpena, adieraziz izangaia ez dagoela eginkizun publikoak betetzeko desgaitua, inongo herri-administrazioetan ez daukala zerbitzuetik kentzeko diziplina-espedienterik, eta ez daukala Herri Administrazioetan diharduten langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako desgaitasun- eta bateraezintasun-arrazoirik.
- d) Espainiako nazionalitatearik ez duten izangaiak zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, adieraziz ez dutela beren estatuan funtzio publikora sartzeari galarazten dien diziplina-zehapenik edo zigor penalik.



- e) Desgaituentzako erreserbatutako plazetara aurkezten direnek %33ko edo hortik gorako ezintasun gradua egiaztatu beharko dute, organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bitartez.
- f) Era berean, hautatuek egiaztatu beharko dute ez dutela, oinarri hauen arabera, dagozkien eginkizunak betetzea galarazten dien gaixotasun, akats fisiko edo akats psikikorik. Horretarako, dagozkien proba eta osasun-azterketak egin beharko dituzte, Basauriko Udalaren laneko osasun zerbitzuetan. Horrez gain, desgaitasunak dituztenentzako lanpostuetara aurkezten direnek lanpostuen berezko eginkizunak betetzeko gaitasunaren ziurtagiria lortu beharko dute. Basauriko Udaleko Lan-arriskuen Prebentzio Zerbitzuak emango du ziurtagiri hori. Lanpostuaren eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala egiaztatzeko probak eta osasun-azterketa banakakoa izango da.

Hautatuen behin betiko zerrenda onetsi, eta beharrezko agiriak aurkezteko hamabost egun naturaleko epeari hasiera ematen dion Dekretua interesdunei jakinaraziko zaie zuzenean. Halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta Basauriko Udalaren webgunean eta iragarki taulan jarriko da.

Aurreko puntuetan adierazitakoak egiaztatzeko, jatorrizko agiriak edo horien kopia konpultsatuak aurkeztu behar dira. Kopia horiek, baliozkoak izateko, honako informazio hau jaso behar dute: data, eta konpultsa egiten duen pertsonaren izen-abizenak, NANA eta irakurtzeko moduko sinadura.

Dokumentu horiek ezin badira aurkeztu, eta ezintasun hori behar bezala frogatzen bada, izangaiak zuzenbideko edozein froga-bideren bitartez egiaztatu ahalko du baldintzak betetzen dituela.

*Agiriak aurkezteko tokia:* Basauriko Udala, Giza Baliabide Arloa.

*Agiriak ez aurkeztea:* Ezinbesteko arrazoirik tartean egon gabe agiriak adierazitako epe barruan aurkeztu ezean; agiriak aztertuta ondorioztatzen bada 2. oinarrian ezarritako betekizunen bat betetzen ez dela; edo hautatutako pertsonak ez badauka dagozkion eginkizunak betetzeko beharrezko gaitasun funtzionala, ezin izango da karrerako funtzionarioa izendatua izan, eta haren jarduketa guztiak deuseztatu egingo dira, eskabidean datuak faltsutu izanagatik sor daitekeen erantzukizunaren kalterik gabe. Kasua hori denean, hautapen-prozesuaren emaitzen hurrenkerari jarraitu, eta hurrengo den izangaiari egokituko zaio lanpostua, lehenago 10.1. artikuluan jasotako agiriak aurkezten baditu.

#### **Hamaikagarrena. — Praktika- eta prestakuntza-aldia**

Hala aurreikusita dagoen deialdi espezifikoean, praktika- eta prestakuntza-aldia egingo da. Gehienez ere, urtebeteko iraupena izango du.

Kasu horretan, Basauriko Udalak praktiketako funtzionario izendatuko ditu Epaimahaiak 11. oinarrian aurreikusitakoaren arabera proposatutako hautagaiak.

Plaza batzuek praktika- eta prestakuntza-aldia hautapen-prozesuaren beste fase bat gisa aurreikusten dutenez. Bada, mota horretako plaza bat baino gehiagotarako hautatutako izangaiak horietako bat aukeratu beharko dute, praktika- edo prestakuntza-aldia hasi baino lehenago. Hori gertatzen bada, 10. oinarriaren 5. puntuan ezarritakoari jarraituko zaio.

Praktikaldia egiteko lortutako destinoak behin-behinekoak izango dira.

Praktika- eta prestakuntza-aldia, bestalde, honako aldagai hauei erreparatuz ebaluatu eta kalifikatuko da:

- Eginkizunak eta betebeharrak betetzea.
- Egindako lanaren kalitatea.
- Ikaste-jokaerak.
- Ekimena.
- Ardura eta egokitzeko gaitasuna.
- Elkarlanerako jokaerak.
- Herritarrekiko eta lankideekiko harremanak.



Era berean, ebaluazio batzorde bat eratuko da praktika- eta prestakuntza-aldia baloratzeko. Batzordeburua eta bi kide izango ditu, guztiak ere karrerako funtzionarioak.

Honelaxe osatuta egongo da ebaluazio batzordea:

— Batzordeburua: Giza Baliabideen atalburua, edo hark eskuordetutako karrerako funtzionarioa.

— Bi batzordekide, Basauriko Udaleko karrerako funtzionarioak biak. Administrazio horretako karrerako beste funtzionario batzuei eskuordetu ahalko diete kargua.

Goian aipatutako batzordekideetako batek beteko ditu idazkari lanak.

— Halaber, Langileen Batzordeak batzordekide bat gehiago aukeratu ahal izango du. Hitza izango du, baina botorik ez.

Ebaluazio batzordean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokiak dituzten emakumezkoen eta gizonezkoen ordezkaritza orekatua bermatuko da.

Ebaluazio batzordeak, gainera, Epaimahai Kalifikatzaileentzako ezarritako funtzionamendu-arau berak izango ditu, eta praktika- eta prestakuntza-aldia «Gai» edo «Ez gai» gisa kalifikatuko du.

Praktika aldian zehar, eta hura amaitu baino lehen, ebaluazio batzordeak aldi horren garapenari buruzko behin-behineko ebaluazioa egingo du, eta, ebaluazioa ezezkoa bada, interesdunari jakinaraziko dio. Praktika aldia amaitzean, azken ebaluazioa egingo da.

Ebaluazio batzordeak, gero, hautapen-prozesuan lortutako puntuen arabera hurrenkera duen zerrenda bidaliko du Alkatetza Udalburutzara. Zerrenda hori oinarri hartuta, praktika- eta prestakuntza-aldia gaitutako funtzionarioak izendatzeko proposamena prestatuko dute, eta Alkatetza Udalburutzak berau onartu beharko du.

Hautagaiak praktika- eta prestakuntza-aldia gaitutako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak galduko ditu. Alkatetza dekretu arrazoituan jasoko da horren guztiaren berri.

#### **Hamabigarrena. — Izendatzea eta lanpostuaz jabetzea**

1. Aurreko oinarrietan ezarritakoa bete duten hautagaien behin betiko zerrenda egingo du Epaimahai Kalifikatzaileak, bakoitzak lortutako destinoarekin, eta Udalburutzari helaraziko dio, Basauriko Udaleko karrerako funtzionario izendatzeko proposamen gisa. Behin betiko zerrenda hori Basauriko Udalaren Enplegu Atarian eta iragarki taulan argitaratuko da.

2. Orain arte adierazitako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu duten hautagaiekin Epaimahai Kalifikatzaileak egindako behin betiko zerrenda jaso eta gero, alkateak Basauriko Udaleko karrerako funtzionario izendatuko ditu zerrenda horretako hautagaiak, Dekretu bidez, bakoitzari dagokion eskala, azpieskala eta klasean. Izendapenak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

3. Izendatutakoek hilabeteko epea izango dute karrerako funtzionario karguaz jabetzeko, izendatzeko jakinarazpena egiten den dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori beste hamabost egun naturalez luzatu ahalko da, izendatutakoak hala eskatuz gero eta, betiere, horretarako bidezko arrazoiak badaude.

4. Ezarritako epe horren barruan lanpostuaz jabetzen ez direnek, nola eta ez den tartean ezinbesteko arrazoiaren bat, galdu egingo dituzte deialdian Basauriko Udaleko funtzionario izateko lortutako eskubideak. Kasu horietan, Epaimahaiak izendapen-proposamen osagarri bat helaraziko dio Alkatetzari, behin betiko zerrendaren hurrenkera araberagozkoen izangaien alde. Horretarako, aipatutako gorabeheragatik hutsik geratu diren plaza adina izangai hautatuko ditu. Izendatzea proposatzen den izangaien zerrenda horrek, bestalde, haietako bakoitzari dagokion lanpostua adieraziko du, eta Basauriko Udalearen iragarki-taulan eta Enplegu Atarian argitaratuko da. Azkenik, 10. oinarrian eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio.

**Hamahirugarrena. — Deialdia aurkaratzea**

Interesdunek deialdia, haren oinarriak eta oinarriotatik zein epaimahaien jardunetatik eratorritako administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahalko dituzte, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotako modu eta epeetan.

**Hamalauugarrena. — Aldi baterako lan-poltsak**

1. Deialdiak ebatzi ostean, oposizio-faseko hautaprobak gainditu dituzten eta deitutako plazak bete eta gero geratzen diren izangaiek lan-poltsak osatuko dituzte. Lan-poltsa horiek aldi baterako langile-beharrizanak asetzeko baliatuko dira, eta Basauriko Udaleko lan-poltsak arautzen dituen araubidean ezarritakoaren arabera kudeatuko dira, hurrengo paragrafoan ezarritakoaren kalterik gabe.

2. Lan-eskaintza publikotik eratorri eta aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat etorrira eratutako lan-poltsak agortzen badira, derrigorrezkoak eta baztertzailak diren proba gehien gainditu dituztenek osatutako zerrendek lehentasuna izango dute beste lan-poltsa batzuen gainean, gainditutako proba horietan guztira lortutako puntuen hurrenkeran. Nahitaezkoa eta baztertzaila den lehen proba bakarrik gainditu dutenen zerrenda agortu eta gero, lan-poltsen araudi erregulatzailan jasotako lehentasun-printzipioen arabera dagozkionak baliatuko dira.

**Hamabosgarrena. — Izaera pertsonaleko datuen babesa**

Hautapen-prozesuetan zehar jasotako edo sortutako izaera pertsonaleko datuak kudeatuko dira datuen babeserako indarreko araudian aurreikusitakoaren arabera.

Eskabidean emandako informazio guztia fitxategi batean sartuko da. Fitxategi hori bakar-bakarrik erabiliko da hautapen-prozesuak eta aldi baterako kontrataziorako zein bitarteko funtzionarioak izendatzeko lan-poltsa kudeatzeko.

Deitutako lanpostuak lortzen dituztenek baimen espresua emango dute segurtasun-neurriak behar, eta hautapen-prozesurako beharrezkoak diren beren datu pertsonalak tratatzeko.

Hautapen-prozesuetan zehar emandako datuak laga ahal izango zaizkie horiek eskatzen dituzten administrazioei. Izangaiek nahi badute haien titularrak diren izaera pertsonaleko datuak lagatzea, horretarako baimen espresua eman beharko dute.

Hautapen-prozesuan parte hartzen dutenei informazio-eskubidea bermatzearen, prozesuaren zerrendak kontsultatu ahalko dira Internet bidez, Basauriko Udalaren helbidean (lehenago aipatutakoa).

Eskabideetako telefono-zenbakiak eta helbide elektronikoa baliozkotzat joko dira. Eskabidea egiten duenari dagokio datuetan egon daitezkeen akatsez ohartaraztea edo eman daitezkeen aldaketen berri ematea.

Eskabidean adierazten dena da hartuko jakinarazpenetarako helbidetzat, ez bada ostean, espresuki eta sinesgarriro, beste bat adierazi zaiola deialdia egin duenari.

**AZKEN ARAUA**

Oinarri hauetan aurreikusten ez diren kontuetarako, honako hauetara joko da: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen Legea; Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea; Funtzio Publikoa Aldatzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legea; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; eta horiek guztiak garatzeko legeek eta aplikatzea dagokion gainerako legeek xedatutakoa.